


nebala, safitan lufa meidu neban neure luzetasunagaz eta Obispo jauna izanagaitik lokatzez eta urez beterik etxera eldu nintzan. Baña kristiñauak karidade andia dauke. Etxera eldu nintzanian gertu euken urberua eta artu neban bañu bat eta ederki gelditu nintzan meza santua esateko ¡Ai nere semetxo maitea! esango dozu: Ze bizi modu tristia ori! Ez neure atxo maitia; bizi modu au ez da tristia; osasunagaz eta alai eta bizkor emen gentia dabil. Jaungoikua ona dan lez, beti laguntzen dausku geure biefetan eta mutil zafa izanagaitik lokatzetan be, salto bizkor egiten dau. Zeuk be nigaitik Jesusi egunero efesetan dautzezu, ta ni be egunoro mezan akordatzen naz neure gurasoakin. Mundu onetan zer jan euki daizuela Jaunari ezkatzen dautzot, eta beste munduan euki daizuela betiko gloria. Aufera amatxo, aragia safitan ostikaka asten da, baña Jesus maitearen graziaz aragiya eta inpernua aspiratuko dozuz. Ofegaitik, beti eskatu bear deutzagu grazi au; Andra Maria, Aita San Jose, Santa Monika eta zeruko santu eta santak bitarteko ipinten doguzala.

Agur, amatxo: gorantziak neure aide guztiai; nik eskuan mun egiten deutzat.

*Fr. Valentin Berrio-Otxoa*

AÑIARTE



### GURUTZERO JON DEUNAREN ESARUN MAMINTSUAK.

1. Ixaki ilkoñak begi argi baxen ona dagiketsen, Jaunak beti estalin (agertu) ixan dauz bere jakintza ta gogo ogasunak. Biufikeriak arpegia gero ta geyago agertzen dauan gixaldi ontan, bañiz, safi ta naroago estalin daroaz.

2. Ene Jaun eta Jaungoiko! Maitasun garbi ta zintzoagaz Zure bila dabilzazanak, pozez gañezka idoro barik, iñoz itxi ete zaitue? Ez, ene Maite; Zeure egañiz dabilzenai, bidera urtenik, lenen Zeu agertzen zakioez.

3. Nai oneko gixonentzat bidea lau ta biguna ixan ařen, bide-dagiana oñez bizkor, gogoz bizi ta leiz bero ixan ezik, labur eta nekez ibili biarko.



neko zaitarik jantzita ta buruak autsaz estalduta, auts-artetik Jaungoikoari efuki-eske asten yakozan; eta Jaungoikoak safitan entzun be egiten eutsiela dakigu. Autsatik jaso eban gizonaren gorputza, bañero oben-nekeaz auts-pean ikusiaz efukitzen da ta.

Gizasemeak aratuzte-egunetan zigorgafi asko batzen dabez ita efukafiak eriotzeak eskuetan zigorgafiakaz artzen badauz! ordurako oben-nekeaz garbitu ta bifintzen ezpa-dabez galduta dagoz. Aragizko egun ofeitan Jaungoikoari efukia eskatzea ondo da, baña gaiztakerien ganera gaiztakeriak dirala efukia jadesteko egunik berebizienak eztira, Jaungoikoaren begiak oben asko ikusiko dabe ta. Baña egun zoro ofein ostean, aragikerietan ibili dan bat baño geyago, egin dauzan gaiztakeriakaz damututa, da burua *auts* deunaz ezaugafituta auspastuko da, ta baleitike Jaungoikoaren begirakun efukiofa jadestea.

*Parce, Domine, parce populo tuo: Parkatu, Jauna, parkatu egiozu zure erriari*, dirautso Eleixak Jaungoikoari. Ta egun ofeitan Jaungoikoagandik asko aldentzen diran efiai, ta obenakaz Jaungoikoagandik ufin doazan gizasemeai, Jaungoikoak bere efukiaz begiratu ta parkatu beyoe.

Zugandik ufindu dana zure efia da, Jauna; zugandik joan yatzuzan kistafak zeureak izan yatzuz, eta afen, bañero be artu ta parkatu egiozue, gero ta beti zureak izan daitezcan.

PI ABA, K. O.

---

### Gurutzeko Jon deunaren esakun mamintsuak.

4 Makalaren ondoan utsik baño, zama aztuna lepoan-eta be, sendoaren alboan oba. Zamaturik zagozanean, Jainko ondoan zagoz; Bera da zure indara, atsekabetuakaz egon oi da ta. Zama (karga) barik zangozanean, bariz, makaltasuna bera zanean oren alboan dirauzu; gogo-indar eta sendotasuna eroopen-lanetan sustroyak egin eta azten da.

5. Irakasle ta zuzendari baga dabilenak, landan bakarik, jaubege dagoan zugatza dirudi; igalirik asko euki afen, umorara eldu ordukoxe, bidaztiak ola austen dautse.

6. Sari landu ta ondo gordetako zugatzak, garaiz, igaliak dakarz.

7. Zuzenari barik onoimentsu dan gogoa, bakarik dagoan ikatz goria: ixetu biarean, otzitu.



edo sorbalda-gañera gizonak artu biar ebazan zigorka-  
dak, bete dira Dabit'an iragarkiak, eta Jainkoaren esku  
ta oñak zulatuak izan dira eta arantzez burestua bere  
burua. Eraileen asafe bizia, jauparien bekatza, bere  
etsaien almena, efi jauntxoan gofoto ta ikusi-eziña, zu-  
zenburuen bidebagekeria, ta zaren sumiña, gustia amai-  
tu da.

«*Consummatum est*». Jainko-Bildotsak ilundi ain-  
gerua menpetu dau, oben eta eriotzagandik garaile ur-  
ten, eta eriotza emon nai izan eutsan gaiztokia be za-  
palduta itxi. Jainkozko itz au ludi gustian aditu da eta  
bera entzutian dardara egin dabe gaiztokitar etsaiak,  
euren nagusitzaren efauste osoa ikusi bai dabe, ludiak  
pozez entzun dau, bere erospena ikusi daulako, ta ain-  
geruak be txaloak jo dabez Bildotsaren garaipenaz  
orain arte itxita egon diran donoki-ateak zabalik geratu  
diralako.

«Amaitu da guztia» guztia dago beteta, Jainkoak  
emon dautso amaya bere lanari, ta zeru-bidea ufanerez  
dago, zabalik dago.

«¡Adan'en semeak! Jainkoan ziñeztuten ba'dozue  
makurtu zeuen belauinak Gurutziltzatuaren aurian»..

ANDONI ABA. K. O.

Medellin (Colombia) 1933'ko Epaia.

---

## Gurutzeko Jon deunaren esakun mamintsuak.

8 Bakañik jausten dana, bakañik datza, ta gogoaren ardura  
andirik eztau, ain bitxi edefa ondo zaintzeko lar dala deritxo-ta.

9. Bakañik jausteko bilduñik ezpa-dozu be. bakañik jagiko  
zareala uste? Ara: batek bakañik baño bik askozaz geyago al  
dabe.

10 Zama ta gusti jausten dana, bañiro, zamea bizkañean  
dabela, nekez jagiko.

11. Eta itsu jausten dana, itsu bakañik ezta jagiko, ta ba-  
kañik jagiko ba-litza be, bide artezez ezin ibili.



Argi-txakufa, gafa lez ibilten da; ta norberen ibilteak-be norberaganuntz ekañi leike.

Zeanuriko gizon gazteak satsaz edo ustelaz oñetakoak loituta eukiko zituen, eta oñak ipinten ebazan lur ganean eta betik berai yafaitzen eutsela argi-txakufa sortu ta yoaten zan.

Argi-txakufak kalterik ezin lei egin; bildurtu leike bat; baña zer dan yakin ezkerro, ez gaitu bildurtuko.

Argi-txakufak loikeria nun dagon adierazoten emoten dausku.

ARAMAYO



---

---

## Gurutzeko Jon deunaren esakun mamintsuak

---

---

12. *Barunbe-garbitasuna, neguri meyan ixanik be, egin zengikezan inarkun gustiok baño gurago dautzu Jaunak.*

13. *Asmotan darabilzuzan moñoitza oro oreik baño askozaz gurago Goiko Jaunak esagin eta mende-egipen txikiena.*

14. *Legortasunaren mende, jasan-bidetik atsegiñago zakusaz Jaunak; oso eder dau bere maitasunaren ixilean daroazun ildura ori; poz-aldi, gogo-agerpen eta gogarte orok baño ederago.*

15. *Ukatu opa oreik, eta biotzak dopatzuna, didoro-kezu. Zeure nayari, irits ori Jainko arauz danik bai-al dakizu?*

16. *Oi Jaungoiko-maitasun ezti, ondo ezagun-esa; zure sorburu, añada aurkitu dabenak, atsedena dar.*



ba, lobeak; baita bere kideko zan neskaix irama  
aukeratu be. Baña Jon'en biotz-soñaiuan beste dei batek ots  
egian. Ezkontza-bizitza etxakon atsegin. Jaunak beste bizibide  
batera dei egitsona ba-ekian eta bere otoi-añenetan estualdi ar-  
tirik aterateko sutsu eskatzen eutson.

*Lekaidi.*—Iseko-osabeak, albait ariñen euren gurariak beteta  
ikusitai ebezan eta, ezkontzarako biar ziran zerak gertau ebe-  
zan; eztegu-eguna izentau be bai. Jon'ek, bañiz, ondo oldoztu  
(pentzau) arte izteko esan eutsien, baña dana alpeñik; ezkondu  
egin bear zala. Orduan Jon'ek, beñik-bein, autortu ta Gure Jauna  
artzen Iruña'ra juateko baimena eskatu eutzien; eta Iruña'ra juan-  
ik, karmeldar lekaidien atean ots egin eban. Lekaide on areik  
pozañen artu eben euren anaidian.

Jon'en poza etzan txikia; estualditik iges egin eban; Jaunak  
dei egitzon tokian aurkitzen zan.

Beriala idatzi eutsien idazki edo karta Samur bat izeko osa-  
beai. Oneik, lobeak egin eutsoena jakiñik, asko Samindu ziran;  
baña Goikoaren naya ba-zan, egin zediña bere gurari deuna-ta,  
bat etofñi ta zerbait poztu ziran.

Lobeak kutxa zoriontzura ta izeko osaben gotsaria zerure.

SANTI, K. O.

(Urangoan geyago)

---

### Gurutzeko Jon deunaren esakun mamintsuak.

17. Ez egizu zeure guraria egin, ez egitea samingari ixango  
ba'yatzu be, egitea samingariago ixango yatzu-ta.

18. Ziltzarik (tentaziñorik) loi ta latzenak be, naimenak ja-  
ramonik egiten ezpa-dautse, eztabe ludikoikeririk tx kañenak beste  
Jaungoikoagana doan gogoa zikintzen eta loitzen; ori ezeze,  
orielako gogoa iñoz baño ustetsuago joan daiteke Jaungoikoa-  
gana, Jaungoikoaren beraren esanari erantzuteko: «Nekez ta  
loiez beterik zagozen gustiok, etofñi nigana, ta neuk sendotuko  
zaituet».

19. Jaungoikoak obe deritxo bear dauana nekez ta atsegi-  
ñik barik be egiten dauanari, bear dauanez gañerako gustia go-  
gotsu egiten dauanari baño.



nen on...dor'....en er...a...kus...ku...zu Je...sus,  
 zeur...e sa...be...le...ko Se...me o...ne...tsi or...ik  
 O bi...otz bi...gun! O er...u...ki...or!  
 O Ma...ri...a Bir...gi...ña go...zo...a! Gun...e al...dez  
 o...toi e...gi...zu, Ja...un...goi...ko...a...ren A...ma  
 Do...ne or...ek, Je...su...kris...to...ren a...gin...tza...ri...  
 ak ja...de...tsi dai...ke...gu...zan. A...men

## Gurutzeko Jon Deunaren oar eta esakunak.

20. Urkoak jakin-gurez egiñiko eun egikizun baño, iñok ez jakitearen ixilean egiñiko txikiena Jaungoikoak atsegiñago dau; Jaungoikoaren maitasun uts-utsez zer-edo-zer dagianari, iñok ikusi nai ikusi ez, ardurarik ez dautsa. Are geyago, Jaungoikoak berak ikusiko ezpaleu be, beti bezelako alaitasunez eta maitasun zintzoz betiko adiguri berberak egingo leuskioz.

21. Egikizunen bat oso-osoan Jaungoikoagaitik bakarik egiten dauanak, bere biotz osoa Jaunari jauregitzat eskintzen dautso.



etxon igafiko bi garala.—Ederto oldoztuta, bizkofa ez az izango, baña zufa bai.

Ufengo igande - goizian «Erbi» Kirikiño'ren atian zan. —Eup Kirikiño.—Aufera Erbi ba az.—Zetan gozak ba? Bayetzian.—Beraz noz?—Nai dokanian, baña olantxe izan bear yok. Erbi, aske-aske arin egiteko. I bide batetik eta ni beste batetik ta erdian orma bat izango yoguk. Puntetik puntera zeñek lastefago egin 12 bira edo geyago gura ba'dok eta 12'tik geyago irabasten dauzana axe beite irabazle.—Ederto, euk gura dokan lez.—Gayoazan ba ofa solo-bafenera.

Bitartian ixilian eta beste bide batetik Kirikiño'ren laguna posture-tokira yoan zan eta punta baten geratu.

Asi ziran: Erbi'k neke askorik barik laster jo eban beste puntia baña bera baño arintxuago agertu Kirikiño. Bigafenian bizkofago erabili ebazan anakak baña len lez Kirikiño ariñago eldu. Afituta egoan Erbi ta olan galdu ebazan 7 bira efeskan; Miña aterata egoan arnasa-estuka.—Ia 20 biratara gura eban;—bayetz. Erbi'k len baño lastefago egin afen len lez beste 6 lira be galdu ebazan, baña amalaugafenian geyago ezin-da ilda geratu ziran bide-erdian.

Antxe amaitu ziran Erbi'ren afokeriak. Kirikiño geratu zan garaile.

\* \* \*

Norberanaz poztu bear eta bestiari bakian itxi, ezer barik geratu nai ezik.

ANDONI A., K. O.

Fontino (Colombia) 1933.

---

### Gurutzeko Jon Deunaren oar eta esakunak.

22. Likan jausi dan txoriak lanbide bi ditu: likartetik jaregin eta likaloia garbitu; berebat griña txafen bat opatzen dauanak neke bi ditu: griñapetik, jaregin eta areik itsatsitako loikeria garbitu.

23. Griña txafen eraspenik eztauanak luma guztiak dituan txoria baizen arin dago gogoaz egaz egiteko.

24. Eztia ukatzen dauan eulia ezta egaz egiteko gai; ezta gogo-eztitasunzale dana be goiko azkatasunerako eta sokunerako.



duena ta maitetuena dala inok ezik daike ukatu. Ildagero irabaziko ebazala garaipenik andienak ber-berak esan euskun, eta oso-osoan bete da.

¿Baña Teresetxu onen zabaldua, aintzatu ta maitatu zergaitik dan jakin ete-geinke? ¿Edera zalako ete-da? ¿Ixila, ona, atsegintsua, erugea, maitagarria, otzana, gozoa zalako? Guzti ori ta geyago be bazan Teresetxu, baña ezta naikoa. Beste batzuk be izan dira onak, ixilak, goxoak, otzanak, baña eztabe izan onek beste jaraitzale, onek beste zale; onek beste biotz inok eztau beragandu. ¿Zergaitik ete-da, ba? Ara: emen Jaungoikoaren eskua dabilala, burua makur-makur eginda, autortutea baño eztago. Zeruan goi-goyan ipini dau Jaunak «Loratxu»au, guztiok eta alde guztietatik ikusi daigun, eta geure bizitz-eredutzat artuta bere «Bidetxuari» jarri dayogun. Arokeriz eretan dagoan ludi auneru Umetxu bat ipinten dautso Jaunak eredu ta jarraibide, eta orixe berori diñosku Elexeak altaretara jasotean: ¡Jaraitu egizue bere «Bidetxu»tik, jaraitu, Teresetxu Deunaren Gogozko Aurtasun-Bidetxutik zuzen zoaze ta.

TERESETXU DEUNAREN SABIN ANAYA, K. O.

(*Daraike*)

## Kurutzeko Jon Deunaren oar eta esakunak

25. *Jaungoikoaren irudia zeure baruan garbi ta garden euki nai ba'dozu, ez egiezu izakiei biotza zabaldu; ustu ta garbitu egizu, oster, arein kutsutik gogoa, ta Jaungoikoaren argitan ibiliko zara; Jaungoikoak arein antzik eztau-ta.*

26. *Aras (ondo) garbiturik dagon gogoa eztau atetiko-ezerk ez inork gogo-barreyatzen; orela, adimenez Jaungoiko-ixiltasunean dagola, bere baruko bakartasunean bake-baketan Jaungoikoagaz, beste ezeri oartu barik, jardunaldi gozoak izaten ditu.*





## GURUTZEKO JON DEUNAREN OAR ETA ESAKUNAK

27. Jaungoikoari maitasun zintzoa dautson gogoa samuía, otzana, apala ta jasankofa izaten da.

28. Gogo latza berekoikerian gogortuko da. Zeuk, ene Josu, biguntzen ezpadozu, bere laztasunean dirauke beti.

29. Erea galdu dauanak, txoriak eskuetatik iges egin dautsona dirudi: eztau bañiro atxituko.

30. Ene Jauna, izaki-miñez eta izakien kutsuz neban oraindik biotza-ta, ez zindudan ezagutzen.

31. Kordokatu bedi, bear bada, ludi guztia, Jauna; zugar gu tinko egon ezkerro, guri ardurarik ez.

32. Gizonaren gogapentxo bat be ludi guztia baño goragokoa da; beraz Jaungoikoari bakarik dagokio.

33. Zure aingeru jagoleak adimena, bai, argituko dautzu, baña ez zaitu egitera beti igituko; beraz, ona egiteko, ez egon goiko igikunaren begira; egitea bear-ekoa nai egokia dala jakitea naikoa dozu.

34. Biotza bear eztan gauzaren baten ipiñita daukazun artean, eztautsozu aingeruari zeure biotz ori onera igitzen izten. Igartu egin yat, Jauna, gogoa, Zutzaz elikatzeaz (janaritzeaz) gomutau ez nazalako.

35. Nai ori, gogokoen dozun zer ori, eztozu jaritxiko ez zeure bideari edo gogoari jaraituz, ezta goi-sokun-bidez be, apaltasunez eta biotz-etsipenez baño.

36. Zeuri gurari ofeik ilduratzen ekiten ezpadozu, alperik zabiz, eztozu gogo-gozotasunik ez atserik izango.